

IRITZIA
Itziar Ajuria

ERREPORTAIA
Zaidiak,
zaletasun bitxia

BARREN

/11
1997ko obenduaren 5o
V. urtea 217. zkia.

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



BERBETAN

Gemrna Monreal,
Gabonetako
Jaiotzaren inguruan
berbetan

11:11 TIP

Nicolas Jimenez,
Gipuzkoako Karate
txapelduna

KULTURA

Iñaki Hrez
Armendia Idazlea,
Alicanten saritua

Zaldi gainekeo sentsazioak



"Zaldia hezitzearen artea berarekin komunikatzea da" J. L. Rodriguez



Orain. Pilar arrandegian. aurrea herriak



San Frantzisko, 32 Tel: 74 18 35

rr uri ri, rrrr1 rrrrrrUrriir,

Gaia: Mendia

Neurria: Librea

Koloreetan nahiz zuri-beltzean

4 arazki aehienez

**Elgoibartarrel eta Morkaiko M.E.ko
bazkideei (Elgolbarkoa ez bada)
zuzendutako lehiaketa.**

Arazkiak aurkateko orain:

Abenduak 19, ostiraia (Morkaikon)

HARRAK:

Argazkien atzealdean non
eta noiz ateratakoak dren jarri
behar da.

Argazki guztiekin erakusketa
et9ngo da Olaizaga
Kiroldagian abenduaren 23tik
nera bitartean.



ITZIAR AJURIA

Elgoibartarrak Arriaga teatruan

Orri zurixa aunian naukata, gure antzerki denborako kontuak etorri jataz burura. Bazuan Elgoibarren apaiz bat, Don Jose Maria Agirrebalzategi oñatiarra, Nahaste-Borrastian sortzailia, Don Ramon Ormaetxe parrokuari laguntzailia zana. Zezoer ein bihar zala eta, harek asurtau zaban antzerkixan kontua.

Hasiera-hasierakuak ixa danak emakumiak ginan: Elena Opakua, Almazeneko bikixak, Luzia Zabala, Alizia Markos, Pili Gonzalez, Juanita Serrano,... hainbeste ginan! Bi parte izaten zian. Dramia lelengo eta komedixia gero. Ni beti komedixan ibiltzen nitzan.

Hasierako antzerkixa dakat goguan. "Quermor" zakan izena. Erromatarren pasaizoren bat edo zan, epoka hartako zezoer. Honekin batera komedixa txiki bat ein gendun, "La prineesa de Florencia", barre eitzekua. Aragoiko herri batian gertatzen zan istorixia. Italiako opera kantate bat herri horretara juten zan kantatzera baina ongi-etorrixan nahaste bat sortu eta kantantetzat beste emakume bat hartu zaben. Nik eta Almazeneko biki batek eitzen gendun konfunditzen daben emakume horren eta bere laguntzailian papela. Kantau ere ein gendun eta henitaniak tomatiak eta patatak botatzen amaitzen zaben obria. Opereta politxa izan zan! Errosoixo kaliau zauan Cine Elgoibarres-en ein gendun estreinakoz. Herri guztia jun zan ikustera!

Geruo beste obra mordua ein genitxun. "La esclava de Faviola" eta bigarren parte modura "Callveres ambulantes" sainetia.

Holaxe obra asko xamar ein genduzen.

Behin, "La plasmatoria" obrako entsaio batian, Odeoian "Las chicas del tren" eon zan epokian, bata urten zala mangaripe ta bestia ez dakitx nola, ba, batek dakit zer kontauko zioten parrokuari, hasarratu ein zala gurekin. Ordurako Pako Juaristi zauan zuzendari. Bata hemendik eta bestia handik, gure konpainia ein gendun. "Cornpaftia Petatxos" esaten ginon guk.

Berandutxuo "El Casertero" estrenau gendun. Elizan obrak eitzekotan zaozen eta apaizari laguntzeko takilako diruak, orduko

15.000 pta., hari eman gifuzen. Orduan lagundu zan apaizari zala gurekin!

Oso ondo preparautakua zan "El Casertero"; koro, orkesta eta kanpoko musikuekin. Hiru-Iau aldiz edo ein gendun Elgoibarren eta Ermura, Ofiatira, Plaentxira,... leku askotara jun ginan. Sekulako exitua euki gendun.

Gero euskerazkuekin hasi ginan. "Aitona ta biloba" zan bat eta "Ramuntxo" beste bat. Lelengo obrian, biloban papela PelIo Arrietak eitzen zaban; aitona zan Pako Juaristi eta ni kriadia. Mari SoI Gurrutxaga eta Kontxita Arrendia zian bi emakume dotore. Gogoratzen naiz zela esan nion Pakori: "Ene, obra honekin nora jungo gera ba?". Ondo ekibokautau nuan ni. Zumarragara, Eibarren antolau zan euskeraren bueltako jai batera,... sekulako exitua euki gendun. Horretxekin berakin Bilboko Arriagara ere jun ginan. Pentsau, eigoibarttuTak Arriaga teatruan! Zenbat aldiz esan zian gero Pakok: "esaten ziazun zuk honekin ez ginala inora jungo, eta beitzu!"

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Iktero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, hesteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
Tr 74 41 12
Publizitatea:
u. 74 37 04
Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA	Elgoibarko Izarra
LAGUNTAILEA	Elgoibarko Udala
ZUZENDARIA	Ainhoa Lodoso
ERREDAKZIO karrsEiLuA	Andres Alberdi, Rosa Agirregabirfa
KAZETARIAK	Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro
PUBLIZITATEA	Miren Moreno
MAKETATZAILEA	Mikel Cornejo
ADMINISTRAZIOA	Amaia Martin M, Angeles Ortuoste, Rafa Alvarez
KOLABORATZAILEAK	Irati Agirreazaldegia, Gemma Agirregomezkorta, I tziar Ajuria, Ion Arrieta, Agurtzane Arriola, Edurne Bilbao, M. Angeles Exposito, Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza, Ane GuillIO, Jon Gurrutxaga, Antton Iriondo, KOKOE, Imand Larrañaga, ,lokin Martinez, Juan Luis Mugertza, Ongarri Zine Kluba, Pello Rubio, Julian Segundo, Ixidor Solupe, Leire Urkidi, Iban Urizar Unai Villena eta Julen Zabaleta
BANAKETA ARDURADUNA	Imanol Larrañaga
INPRIMATEGIA	Gertu Koop. E.
TIRADA	4.000 ale
LEGE GORDAILUA	SS-1.038/92
ISSN	1133-021X

Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlaritzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.



ZZO fundazioa
fundación

4 ADANOBAT
MACIUNAS HERRAMIENTA

hGOITI
GRUPO DANOBAT

Mahai Nazionalarekin elkartasuna

Kimetz Elkarteko zuzendaritzak erri Batasunaren Mahai Nazionalarekin kideen aldeko elkartasuna adierazi nahi du. Era berean, gartzelaratzeko erabakia salatzen dugu.

Ez dugu uste Bake Proposamen bat gizaratearazteagatik gartzela jasoteak ezer onik ekarriko dionik gure Euskal Herriari; are gehiago, sufrimendua areagotu eta Bakea eta Askatasuna atzeratzea besterik ez da lortuko.

Amaitzeko, gure elkarteko bazkide guztiei, baita herritar guztiei ere, mobilizazioetan parte hartzeko deia luzatzen diegu, bakearen aldeko borroka denon laguntza eta bultzada behar duelako.

Kimetz Elkarteko
Zuzendaritza

Elgoibarko Herri Batasuna

Herriari

uskal Herria eta estatuaren arte-
ldko gatazkarik sufrituena, ETA
eta Estatu espainolaren botereen ar-
teko gatazka dugu.

Gatazka sufritu honetako bi al-
deetatik batek, ETAk alegia, gataz-
karen soluziorako proposamena pla-
zaratu zuen Alternatiba Demokrati-
koaren lemapean.

Bake proposamen hau euskal gi-
zarteak eta Gobernu espainiarrak
ezagutu eta eztabaida zezan, Herri
Batasunak bideoa erakustea nahi
izan zuen. Bideoan hiru gaztek bu-
rua estalirik, Alternatiba Demokrati-
koa azaltzen dute. Bideoaren azken
unean, hiru gazteak mendian urrun-
tzen hasten direnean, ETAkokoak zi-
ren ezaugarri bezala, gazte bati pis-
tola bat nabari zaio atzeko patrikan.

Honen erruz, eta Euskal Herrian
sortzen hasi ziren bake biderako
urrats berrien aurka, euskal erakun-
de bateko zuzendaritza politikoak
zazpi urteko gartzela zigorra jaso du
Madrilgo epaileen eskutik bake pro-
posamen bat eskaintzearen.

Ezein estatu eta botere arrotzen
biolentziari beti erantzun izan dio
Euskal Herriak bere neurrian, eta
oraingo honetan ere erantzungo dio.
Herria ezin delako inoiz galtzaile
atera, gatazka konponbiderako
tresna den Alternatiba Demokrati-
koaren eskutik, "lepoan hartu ta se-
gi aurrera".


KEXAK

- San Lorentzora egunero joaten den emakume batek kexa hau bidali digu: "Ermuaran-Bide kalean, trenbidearen azpian dagoen pasabidea garbitzeko eskatu nahi diet Brigadakoei. Handik pasatzerakoan sasiak aurpegian jotzen dizute. Bertatik ume eta guraso asko pasatzen da egunero, IMHra doazen gazteak eta San Lorentzora egunero pasiaran joaten garenak ere bai".
- Bi haur etorri zaizkigu kexatzen Urasandiko parkean zeuden kolunploak kendu eta berriak ez dituztelako ipini. Aspaldi kendu omen zituzten eta eurak noiz ipiniko zain daude bertan jolasean ibili ahal izateko.
- Herritar batek deitu digu zera esateko: "Mintxetako gizona zkoen kornunetan ez dago argirik. Honez gain, partiduak amaitu eta berehala, zelaiko argiak itzaltzen dituzte eta ikusleok ilunpetan topatu behar izaten dugu irteera. Ez hori bakarrik, partiduak jokatzen diren bitartean, harmailetan ez da argirik egoten, eta ez da ezer ere ikusten".
- Pedro Miget Urruzuno kalean bizi den auzotar talde batek, Gabonetako argiak direla eta, kexa hau azaltzeko eskatu digu: "zergatik ez dira jartzen gure kalean Gabonetako argiak?".

TXALOAK

- "HIESaren Nazioarteko eguna ospatu zen astelehenean, hilak 1, eta HIESa gainditzeko lanean ari diren guztiak txalotu nahi nituzke. Txalo bat baita ere, HIESa eduki eta eguneroko bizimoduan aurrera egiteko izugarritzko indarra erakusten dutenei".
- Jubilatutako zuzendaritzak Elgoibarko katekistak txalotu nahi ditu "jun dan eguneko txokolatadian fin ibili zirelako lanian. Benetan lan estimagarria eitzen dabe emakume hauek".

B AI, E SAN?



Klaki Odriozola Amnisiaren Aideko Batzordekoa

Euskal presoek Euskal Herriko gartzelatan egoteko duten eskubidea aspaldi aldarrikatu da hainbat sektoretatik. Baina oraindik ez da "mugimendurik" ikusi Espainiako Barne Ministroaren partetik. Gai honi buruz berba egiteko Amnisiaren Batzordeko kidea den Iñaki Odriozolari deitu diogu.

- Ez al doa luze presoak euskalerriratzaren gaia?
- Luze doa eta gainera, etorkizunean ere ez dirudi, oraingoz, asko hobetuko denik. Gobernu hau badakigu noren heredentzia den eta etepresioaren alde itsu-itsurik dabil. Hauek duintasun gutxikoak izanik, euskal gatazka sufrimendu gehien dagoen tokitik daukate helduta, guraso, senide, lagun eta noski, beraien menpe dauden euskal presoetatik. Gaur egun, nahiz eta udaletxe gehienetan herdetako elkarte, pertsonalitate, eliza, nahiz parlamentuan, hurbilketa eta euskalerriratzaren alde egin dugun, ez zaie gehie inporta Madrilera frankista berriei.
- Non daude Elgoibarko hiru presoak? Bata Ckeresen, bestea Huescan eta hirugarrena Villabonan, Asturiasen.

Familiakoek zein arazo izaten dute presoak bisitatzerakoan? - Batetik, bidaia. Huescan, jadanik hasi da elur egiten eta lau orduko bidaiaz gain, negu osoan bidean izotza dago. Ckeresera 7 orduko bidaia da. Asturiasera bide eskasa eta bustia. Astero istripu aniskuan ibili behar dira senideak (6 hil dira eta dozena bat zauritu dagoeneko). Bidaia hattek diru asko kostatzen dute, gero berarentzat ere utzi behar, erropak etab. Bidaia egin eta gero ordubete eskaseko bisita. Hau egoera normalean. Elgoibartarren senideek 13 urtetan denetik ikusi dute: mehatxuak, mesprezuak, harrikadak, bidean erretentituak, arakatuak, bisitaren galeraztea eta arbitrariedade gorra nonahi.

- 13 urte bete berri dituzte gartzelan. Noizko kalean?
- Baikorra nahi nuke izan baina azken gertaerak ikusi eta gero oraindik indar asko egin beharko dugulakoan nago. Halere, denak etxean ikusi arte jarraituko dugu. Ziur egon.

21111 ANCHUSTEGUI sa
w1111 **ZERANIKAK**

Erakusketa eta bulegoa
Antonio Anillega, 6-8
behea
83 Postakutxa
Tel: 74 33 44 - 74 06 92
Faxa: 74 37 11

Biltegia:
Arregitorre, 10 - 14 behea
Tel. 74 20 38 - 74 23 71
20870 - ELGOIBAR
Gipuzkoa



karkizano

Tel.

San Frantzisko 12-14 — Tel: 74 05 49

ZALDI GAINEKO ENTSASAZ 10AK

Gero era gehiago daude aisialdiaz disfrutatzeko. Gero eta kirol mota gehiago probatzeko irrika izaten du jendeak. Bidaia agentziek aste-bukaera eta egun bateko irteerak antolatzen dituzte, horien artean zaldi gainean ibiltzea. Zaldiak ez dira animalia oso ezagunak guretzat. Umetan Igeldora joan eta poni gainean ibiltzeak izugarrizko ilusioa egiten zigun. Gaur egun Donostiako Hipodromoan zaldi lasterketak izaten dira badakigu. Eta aspaldian, gure herrian bertan, Mintxeta aldean zaldi gainean ibiltzen denik ere ikusi izan da. Horien berri izateko asmoz bi elgoibartarregana jo dugu. Ion Iriondo mendi-trabesietan ibiltzen da zaldiekin eta Jose Luis Rodriguezek hezitu egiten ditu.

toki nahikoa zaldiak gordetzeko. Gaur egun bost zaldi ditu: *Dariyo, Azkar, Iris, Axut eta Hego Haizea*. *Dariyo* eta *Azkar* arabiarak dira eta besteak behor ingelesak.

Dariyo 10 urteko zaldi zuria da, "ekarri nabab lelunga. Berakin ikasi nabab zaldi gainean ibiltzen eta horretarako oso inportantia da zaldixak urtiak eukitzia eta trankila izatia". Izan ere, zaldi gazte batek askoz nerbio gehiago izaten du eta ez dago ohitua bere gainean inor eramatera. Ion behin baino gehiagotan erori izan da zaldi gainetik, "normala da. Gainera, zaldixak errespeto haundia ematen dau, jakin ein bihar da zela tratau". Ionek esan digunez, garrantzitsuena zaldiari bere kasa lagatzea da, "ez jako kontra ein bihar, ze bera derrepente konturatzen da zuk ez dakizula zaldi gainean ibiltzen. Horregatik, onena da berari lagatzia erakusten, poliki-poliki konfiantzia hartu arte. Zaldixak indar haundia daka eta ezin diozu kontra ein".

Jose Luis Rodriguezek zaldiak hezitzen ditu.


MEN DI-TRABESIAK

Zaldiak ondo tratau behar dira, "zentzu guztietan. Jaten ere ondo eman bihar jakue eta danetik. Bartzuk, debiltzeko, gitxio ematen diue jaten, uste dabelako hola kaso gehixingo eingo diuela. Baina, ni ez naokonforme. Zaldixa ondo tratau bihar da eta danetik eman bihar jako jaten, belarra, lastua, pentsua... Indarra euki bihar dau eta zuk maitxe dozula eta ondo egotia nahi dozula konturatu bihar da. Zu gustora ibiltzeko zaldi gainean berak ere disfratau ein bihar dau eta pozik bizi bihar da, bestela zaldixa engainatzia da. Gainera, konpetizuetan ibiltzen dian zaldixak atletak moduan euki bihar ditzuzu: jaten eman, hilero albaitarixa etorri eta odola etara...".

Aurten lehen aldiz hartu du parte Ionek 50 kilometroko mendi-trabesia batean *Dariyo* rekin. "Erresistentzia karrerak dia eta maila desberdinak daude. 50 kilometrokin hasten zera afizionau mailan eta hortik aurrera, zaldixa ona ba-

Ion Iriondok 26 urte ditu eta pare bat urte daratza zaldien kontuarrekin, "Azkoitxiko laun batekin hasi nintzan. Gustau ein jatan eta nik ere zaldi bat erostia pentsau nabab". Sansongua baserrikoa da Ion eta kalean bizi diren arren bertan badu





Ion Iriondo eta Azkar, bere zaldietako bat.

da, 100 kilometrokua eitxen lagatzen dizue eta ondo badixe, 160 kilometrokua profesional mailan". Ionek aurten 50 kilometroko pare bat trabesia egin ditu eta datorren urterako 100 kilometrokua hasiko da prestatzen, "Telengo karreran justu amaitxu genduan baina bigarrenian forma fisiko onena dakan zaldixari ematen jakon premixua irabazi gendun". Hori bai, Ionek afizio modura hartzen du hau, "disfrutatzia nahi dot eta ez dirua etara-tzeko zaldixa matxakau eta erretzia".

Ionentzat gauzarik ederrena zaldia-ekin Karakate gainera igo eta galope motzean kilometroak egitea da, "gainera nik lehen ezautzen ez nitxuan toki modo bat ari naiz ezautzen zaldixari esker. Askotan galdu eitxen zera eta beste bide batetik zuaz, baserri bat ikusten dozu.. Oso toki politxak daude zaldixakin ibiltzeko hemen zihar. Gainera, zaldixa pozik ibiltzen da mendixan eta horrek indarra ernaten dio. Ohitxu eitxen da asko ibiltzen. Gero karreran dabilenian eta ikusten badau aurretik beste bat dakala, harrotu eitxen da eta a tope hasten da, ez dao geratzerik!".

ZALDIK HEZITU

Jose Luis Rodriguezek 34 urte ditu. Elgoibartar honi umetatik gustatu izan zaizkio zaldia. Kontatu digunez, txikia zenean, "senitartekoek zituzten zaldi gainean ibiltzea gustatzen zitzaidan. Halere, zaldia ez ezik, asto gaine-

an ere ibili izan naiz, behi gainean...". Jose Luisek behin eta berri-erori eta gero ikasi du ondo ibiltzen, "rejoneatzaileak eta hezitzaileak diren lagunak ditut eta haiekin ikasi nuen. Liburu espezializatuak ere irakurri nituen, baina, batez ere, ahal nuen guztietan praktikatzen nuen".

Elgoibarrera orain dela sei urte ekarri zituen zaldia, "lehen Amorebietan korta bat neukan alokatua baina askoz nekezagoa zen lanetik atera eta bertaraino joatea. Eguraldi txarra, ilun zegoela... askoz errazago topatzen dituzu aitzakiak ez joateko, horregatik, aukera atera zitzaidanean Elgoibarren bertan korta izateko, zalantzarik gabe onartu nuen".

Jose Luisek Mintxeta baserrian hiru zaldi ditu: *Cubano*, Espainiar purua; *Murillo*, anglo-lusitanoa (ingeleza eta portugesa) eta *Piropo* Quarter-horse arrazakoa, "John Wayneren bakero pelikuletan azaltzen direnen bezalakoa". Jose Luisen ustez "ekitazioak duen gauzarik politena ez da zaldi gainean ibiltzea, zaldiarekin harreman zuzena izatea baizik: zaintzea, sendatzea, jaten ematea, garbitzea.... Amorebietan zaldia zainduta zegoen eta ni montatzera bakarrik joaten nintzen. Harreman hotzagoa zen. 'Ekitazio domingeroa' praktikatzen nuen".

Jose Luisi ferietan zaldia erosi eta hezitzea gustatzen zaio, "horretarako onena zaldia 3 urtetik gora izatea da". Hezitzaiek, "zaldia otzantzea, hainbat mugimendu egiten ikastea esan nahi du". Horretarako pazientzia handia behar da, "gehiago lortzen da sariekin zigorrek baino Hanka altxatzen irakatsi nahi badiozu, lortzen duenean hola da azukre-koxkorra edo azenarioa ernatea. Eta zerbait gaizki egiten badu tonu altuan esanclako hitz bat nahikoa da. Zer esaten diozun ez du uler-tzen, baina bai nola. Berehala konturatzen da horretaz". Zaldia hezitzeara artea, "berarekin komunikatzea da, hau da, hezitzailearen eta zaldiaren artean, elkarri uler-tzeko hizkuntza sortzea".

GARESTIA?

Zaldia 100.000 pezetatik hasi eta 30 milioira

bitartean aurki daitezke. "Gaur egun ia ez dago zaldi beltzik merkatuan eta asko baloratzen dira. Honen arrazoia da, duela zenbait urte edari baten iragarkia egin zela, bertan zaldi zuri baten gainean zebilen neska agertzen zelarik. Izugarri baloratu zen zaldi mota hori. Gaur egun zaldi zuri-motadun asko dago eta beltzak ez dira apenas geratzen". Jende askok uste du aberatsen afizioa dela baina, "ni ez nago ados. Gertatzen dena da ez gaudela ohituak eta zaldiei buruz daukagun irudia Cayetano Martinez De Irujo, Infantak eta ez dakit zein abogatu famatuk ematen digutena da. Badirudi aberatsek bakarrik praktikatzen dutela. Zer gerta-tzen zen duela urte batzuk eskiarekin? Gauza bera, dirudunek bakarrik zuten aukera eskiatzera joateko. Gaur egun, aldiz, edonor joaten da Candanchura". Zaldiek duten desabantaila da "ezin direla eduki edozein tokitan. Ondo zaindu behar direla, atentzioa eskatzen dute... Ez da txori edo txakur bat izatea bezala. Garestia? Ziur naiz egunero poteoan ibiltzen direnek edo ehiztariek askoz diru gehiago gastatzen dutela. Norberak jartzen ditu lehen-tasunak".

SENTSAZIOA

"Zaldiena mundu berri bat da. Sentsazio bat da eta sentsazioak ezin dira azaldu, bizi egin behar dira. Niretzat, goizean goiz liburu bat, otartekoa eta edaria motxilan sartu eta zaldiarekin egun pasa mendira ateratzea zoragarria da. Ez dago hori baino gauza erlajantegorik. Beste garai batean bizitzea da". Halere, jendeak ez duela errespetatzer aipatu digu, "askotan gertatu izan zait Mintxetan ibili eta jendea gaizki esakartzea, harroputza naizela entzutea, zurumuru bat atera zen nik ejerzitoarentzat zaldia hezitzen nituela esanez... Denetik entzun behar izan dut".

J. L. Rodriguez

Ier begitantzen zalzu HBko mahaikideel ezarritako epaia?



TXOMIN GABILONDO
71 urte, jubilatua

Pixkat gehitxo, sententzia gogortxua izan da. Ez dakit ze hartu daben kontuan baina estrainekoz izateko gehitxo izan da.




PAZ GONZALEZ
53 urte, etxeoandrea

Egiten dutena ez dago ondo, idealak beste era batera defendatu behar dira, baina 7 urte asko dira. Halere, pentsatzen dut ez dutela kondena osoa beteko.



GERARDO OTERO
40 urte, pentsionista

Gauza asko izan dira kontuan, ez bideoa bakarrik. Ekintza salagarri asko egiten dira alde guztietatik baina horrelako sententzia litikoa da.



JOSE MARI SAN MARTIN
32 urte, montadorea

Oso gaizki, epaiketa politikua izan da. Irratixan entzun dot juezak ere fiskalan posturia hartu dabala, akusatzen. Argi eta garbi, oso gaizki.



ROSARIO PEREZ
33 urte, etxeo laguntzailea

Segun eta ze aldetik begiratzen den bidezkoa da edo ez. Ez nago ziur delittoa izan den, baiezkoan nago. Halere, horregatik bakarrik bada, 7 urte gehiegi dira.



PAULA ASTIGARRAGA
77 urte, jubilatua

Neretzako gogorra da, ez naiz inor esateko baina... Esaten da delituak pagau ein bihar diala baina nik neuk ez dakit zehatz zer ein daben eta gehixegi beixantzen jata.

LASA JATETXEA

..._""

OZAETA JAUREGIA
(Bergarako
hegoaldeko irteera)



Tel: 76 10 55 BERGARA


EZKONTZETARAKO
JANGELA
ZABAL eta APROPOSA

PARKING PRIBATUA
TERRAZA
eta LORATEGIA

Astekowldko DEGUSTAZIO NENUA

Oilo lirema almerwirellin
a)
Perrelxitlo errebueltocri
hoixklocil 5111521rellin
Legotz etct ganhozRo 'crep"
te
"Ibi" eta piperbellz twro5kintin
"Cosis" ildturol sorbelea
011
Ogia, 3 tirtelto litro erdilto ardooc eclo
ur mincrucl, petit fotirs-all
41/
5.300 pta. + BEZ (%7)
Guztia etxcan egina

KALEAN EZ EGIN "KAL



Ez bota kalean etxean botatzen ez duzuna


ELGOIBAR: GERO ETA GARBIAGO



ELGOIZE011141,1

Aff

DESALLEHEIOMOSIL. 11V114.



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIRA

• **Arnaldo Otegi**
HBko bebin-behineko
Mahai Nazionaleko
bozeramaile

HBko Mahai Nazionaleko zuzendaritza gartzelaratzearen aginduaren ostean, bebin-behineko zuzendaritza eratu da. Gestora horretako bozeramalea **Elgoibarko** Arnaldo Otegi HBko legebiltzarkidea izango da. Arnaldorekin batera Joseba Permach Donostiako HBko zinegotzia izendatu dute Mahai horretako kide. Zuzendaritza probisional honen zeregina erabakiak hartzea izango da bebinbetiko Mahai Nazionaia izendatu bitartean.



300.000 pla.ko isuna jar diote Jon Etxabe
abokatuari defentsa euskaraz egiteagatik

Euskarak epaitegietan bizi duen egoera salatu du

Bezero bat euskara hutsean defendatzeagatik, inolako itzulpenik gabe, Donostiako Entzutegi probintzialeko 1. salako epaileak 300.000 pta.ko isuna ezarri zien Jon Etxabe abokatu elgoibartarrari eta bere lankideari azaroaren 27an izandako bistan. Duela pare bat aste Jonek berak azaldu zigun bezala, "bezeroak euskara hutsezko defentsa egiteko eskatu zigun, itzulpenik gabe. Bista hasi bezain pronto itzulpena



onartu beharra geneukala ohartarazi zigun epaileak". Kasurik egin ezean, sei hilabetetik urtebetera bitarteko gartzela zigorra jar zieziaiekela jakinarazi zien epaileak, baina azkenean isuna jartzea erabaki zuen. Jonen esanetan, jarrera honekin salatu nahi duguna da euskaldunak atzeritarrak bagina bezala tratatzen gaituztela epaitegietan. Txinatar bati edo ingeles bati itzultzaile bat jartzen zaion bezala, gurekin ere gauza bera egiten dute, eta hori onartezina da, gaztelaniarekin batera euskara hizkuntza ofiziala baita gure autonomian". Gauzak horrela, Jon Etxabe eta Ainhoa Erkizia lankideak epaia errekurritzeko asmoa dute. "Kasu hau Euskal Herriko epaitegietan euskaldunok bizi dugun egoera salatzeke erabili dugu. Euskal Herrian daudden 130 epailetik 12k bakarrik dakitte euskara eta bada ordua gauzak aldatzen hasteko".

Jubilatuena Astea ospatzen ari dira Jubilatu
Etxean


Aste osoan zehar jai giroa nagusitu da gure herriko jubilatuen egoitzan. Adineko pertsonen zuzenduriko astea ari dira ospatzen eta era guztietako ekitaldiak egin dituzte hilaren 2an hasita. Astearte iluntzean, esate baterako, 500 edadetuk herriko katekistek prestatutako txokolate-jan ederraz gozatzeko aukera izan zuten, bizkotxo eta ogi samurrez lagunduta. Ostegun iluntzean Gabonetako 50 otarre zozketatu zituzten jubilatuz guztien artean eta gaur goizean, 80 urtetik gorako ezkontideak eta urrezko ez-tatak egin dituztenak omendu dituzte.



Ikasle portugaldarrak Gestio Eskolan

Portugaleko 14 ikasle Elgoibarren izan ziren azaroaren 24tik 30era bitartean Gestio Eskolak gonbidatuta. Ikasleen elkartrukearen programaren barruan, Portugaleko ikasleek Elgoibarko eta inguruko herrietako enpresak, Guggenheim museoa, Iberdrola eta beste leku batzuk bisitatzeko aukera izan zuten. Gestio Eskolako ikasle elgoibartarren etxeetan egon dira bizitzen egun hauetan eta anekdotarik ere izan da. Elgoibarrera iritsi eta hurrengo egunean, ikasle batek apendizitis-a zuela-eta, Mendarora eraman eta operatu egin behar izan zuten. Jakin dugunez, ebakuntza ondo atera zen eta ikaslea erabat sendatuta Portugalera itzuli da gainerako klasekideekin.





aitor zabala

Elgoiharko presoak 13 urte gartzelan

Elgoibarko Amnistiaren Aldeko Batzordeak antolatuta, Elgoibarko hiru presoak, Mikel Alberdi, Iñaki Jaio eta Inaxio Iriondo, 13 urtez gartzelan daudela gogorarazteko ekintzak egin ziren joandako asteburuan. Zapatu goizean HBko kideek informazioa emateko mahaiak jarri zituzten Plaza Handian. Iluntzean manifestazioa egin zen kaleetan zehar eta gauean, kontzertua izan zen Gaztetxean. Gazte Asanbladarekin elkarlanean antolatutako kontzertuan 250 bat lagunek ederki pasatu zuten Lin Ton Taun taldearen doinuaren erritmora.

Lazo gorriak HIESaren aorka

Pasa den astelehenean, abenduak 1, Nazioarteko HIESaren eguna ospatu zen. Elgoibarren Errotatxo Elkar-teak bultzatuta, lazo gorriak ageri ziren heniko leku ezberdinetan: elizan, Udaltxean, ikastetxeetan, dendetan eta etxeetan. Errotatxok dendetanpreterbatiboak eta lazo gorriak banatu zituen herritan'en artean. Iluntzean kon-tzentrazioa egin zuten Nafarroa Plazan.



OLENTZERe

1997

ELGo11311R

Goizeko Iletan Madalako parkean

EGITASMOA

- Goizeko Iletart Madalako parkean elkartuko gara.
- Ondoren, Plaza Handiraino joango gara kantuan eta kalejiran.

Plaza Handian Olentzerori eskutitzak emango dizkiogu.

- Dantza pixka bat egin ondoren datorren urtera arte agurtuko dugu Olentzero.

ZORIONAK
ETA
URTE
BERRI ON!



ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA

LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Elgoibarko Udala

AZAROAREN 28KO PLENOA

1997an Udaleko

hobera egin dMs

Marcos HBkidearen mehatxuen aurkako mozioa onartu zuten alderdi guztiek

Joan den ostiralean plenoa izan zen Udaltxean. Pare bat ordu iraun zuen udalbatzean hainbat puntu izan ziren eztabaidagai, horien artean Kirol Patronatuko, San Lazaro egoitzako eta Udaltzeko kredituen habilitazioa onartu zirelarik. HBk mozioa aurkeztu zuen uztaitetik hona alderdiko zinegotzi batek jaso dituen heriotza mehatxuen kontra.

Euri zaparraden eraginez, Udalbatza Aretoan tantanak hasi eta kuboak jarri behar izan ziren. Argi geratu zen gure Udaltxeak konpinketa beharra duela.

Anekdotak alde batera utziz, Isaak Loiola Hazienda lehendakariak Udalaren egoera ekonomikoa hobetzen ari dela esan zuen. Horrela bada, Kirol Patronatuak 12.728.500 pezeta gehiagoko sarrierak izan ditu, San Lazaro egoitzak 6.101.116 pezeta gehiago eta Udalak 34.012.107 pezeta gehiago. Kirol Patronatuko eta San Lazaro egoitzako sarrierak kiroldegia eta ekipamendua hobetzeko erabiliko dira eta Udaleko diru-sarrierak inbertsioetarako eta enplegu sustapenerako.

Marcosen kontrako mehatxuak

HB alderdiko zinego-tzia den Juan Karlos Marcosek izan dituen mehatxuen kontrako mozioa aurkeztu zuen. HBren mozioak bi puntu zituen, zinegotziaren kontrako mehatxuak salatuz, bata, eta gatazka politikoari irtenbide negoziatu eta elkarrizketatua ematea eskatuz, bestea. PPko zinegotzia den Juan

Carlos Abianek azaldu zuen, 1997ko otsaileko bozeramaileen batzordean, HBko Mendizabalek esan zuela hemen ez dagoela normaltasun politikorik, "ez HBrentzat ez beste inorentzat. Ez dezala pentsatu PPk kalean lasai ibili ahal izango dutenik gu gartzelarutzen gaituzten bitartean". "Uztaitlean M. A. Blanco hil zuen ETak", gaineratu zuen PPkoak, "halere, mehatxuen aurka nago, edozein aldeta- tik etorrita ere, honrgatik salatu egiten dut HBren kontrakoa".

EAJko Loiolaren hitzetan, "Elkoro-Iribe alkate ohia, Oruesagasti edo Gillermo Garate mehatxatu izan dituztenean HBk ez ditu salatu. Guk Marcosen kontrako mehatxuak salatzen



Ezkerretik hasita lehenengoa, J. C. Marcos.

ditugu, ea beraiek gauza bera egiten duten aurrerantzean". IUren esanetan, "mozioaren edukia eta izpirituarekin bat gatoz. Mehatxuak beti dira salagarriak". Bozketan, alderdi guztiak agertu ziren lehen puntuarekin ados baina bigarren puntua IU-EBk bakarrik onartu zuen.

INIALEMKO UIRU KONTUAK	1996ko aurrekontua	1997ko aurrekontua	1997ko espedientea
Aurrekontua guztira	1 155.577	1.237.611	1.271.623
Aurrezki gordina	249.535 .	275.634 .	.. 288.057
Karga finantzieroa	197.989 .	181.946 .	180.703
Aurrezki netoa	51.546 .	93.688 .	.. 107.354
Zor bizia	1 198.099..	1.098.804 ..	1.096.804
Inbertsioak	130.263 .	231.521 .	245.187
Gastu publikoa biztanleko . . .	105.244 .	112.715 115.813
Presio fiskala biztanleko	41.301 .	42.786 .	42.962
Inbertsio indizea	%11,27 .	.. %18,71.. %19,28

Oharra: Kopuru guztiak milioitan daude, biztanleko gastu publikoa eta presio fiskala izan ezik, bauek pezetatan baitaude.

• **Hilobiak eta Jubilatutako Etxeko kafetegiko oinarriak**

Udal Ongizate Sailetik adierazi digutenez, Olasoko kanposantuko hilobiak eskuratzeko eskabideak aurkezteko epea abenduaren 9an amaitzen da. Era berean, Jubilatutako Etxeko kafetegiko zerbitzua eskabideak abenduaren 15ean aurkeztu ahal izango dira beranduenez. Informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero, Udaltzeko Gizarte Sailetik pasatu edo 74 10 08 zenbakira deitu.

• **Alberto Iriondo Euskara lehendakari berria**


Joan den ostiraleko plenoan hartu zuen Alberto Iriondo Elustondok EAJko zinegotzi kargua. Orain arte Gotzon Arrietak bete duen tokia ordezkatuko du aurrerantzean Alberto Iriondok eta Euskara Batzordeaz arduratuko da gehienbat.



SABINO LIZARRALDE:

"Gabonzahar ferian txahal bat erreko dugu ikastolaren aide"

*Abenduan sartu gara. Gabonak gai-
nean daude. Gabonzahar feriaren
antolakuntzako lehen un-atsak as-
paldijarri dira martxan. Aurten, be-
rritasun bat ikusi ahal izango dugu
zuzenean. Izan ere, Garay, Annite-
ta, Ziarda, Mari Plaza eta A.L. Be-
nito harategien laguntzaz, „San Bar-
tolome ikastolak txahal bat erreko
du burduntzi erara herritarren au-
rrean. Horrez gain, sagardo kupe-
lak ere jarriko ditu. Gudiaren berri
jaso nahi izan dugu eta horretarako
antolatzaileetarako batekin hitz egin
dugu, Sabino Lizarralderekin.*



—Zer egin behar duzue Gabonza-
har ferian?

- San Bartolome ikastolako gura-
suak pentsau genduan aurten Gabon-
zahar ferian zeozer desberdina eitxia.
Azkenengo urtietan tonbolia ein izan
dou baina aurten beste **zeozer** eitxeko
gogua zakagun, espektakulua ematia
herritarrei. Hasi ginan begiratzen
eta ikusi genduan toki batzuetan ei-
txen dala txahala oso-osorik burdun-
tzi erara erretzia.

- **Kultur Etxe parean izango da,
ezta?**

- Bai. Txahalak, eitxeko, 12 ordu
bihar ditxu. Horre-
gatik, goizeko
betan edo zazpire-
tan hasiko da erre-
tzailia dana mar-
txan jartzen. Arra-
tsaldeko 7etarako
jaso bihar da dana.
— **Erretako okela
saldu egingo al
duzue?**

- Bai, pintxuak
eingo dia eta jen-
dian artian saltzeko
asmua dakagu.
nera, egun osuan
zihar txahalan on-
duan tabemia jani-
ko da eta Petritegi
sagardotegitikan bi
kupela ekarriko di-
txugu sagarduakin.

**Herriko harate-
giek ere hartuko
dute parte.**

- Bai, hala da. Euskal labela daken
bost harategi daude Elgoibanen eta
danak jarri dabe dirulaguntza txahala
erosteko eta txahala zatitzen ere lagun-
duko digute. Gainera, enifa batzuk
salduko ditxugu egun guztixan zihar.
Sarixa Gabonetako otarre bat izango
da eta produktuak karnizerixa horiei
erositakuak izango dia.

**"12 orduz erreko dugu
txahala eta gero pintxoak
salduko ditugu. Pare bat
sagardo kupel ere jarriko
ditugu"**

— **Zein pisu izango du txahalak?**

- Kanalian asmua dakau 200 kilo-
kua izateko eta kalkulatzen da 1.200
pintxo inguru etarako diazela. Txaha-
la erositxa dao. Oñatiko mataderuan
hilko dabe eta gero profesional bat
etorriko da erretzera, burduntzixan
lan eitzen ohitxuta dauan pertsona
bat egongo da.

—**Ikusi al duzue horrelakorik beste
nonbaiten?**

- Bai, lehengo egunian Oñatin
izan ginan eta jendiari asko gustau ja-
kon. Gabonzahar ferixia ikusgarrixa
izaten da, ze danetik egoten da eta
jende asko hurreratzen da. Nik uste
dot gauza politxa izango dala.

—**Abenduaren 27an izango da zita.**

- Bai, urteko azkenengo zapatuan.

—**Ea ez duen euririk egiten!**

- Bada ez bada ere, toldua ipini
bihar dou!

Enpresak sortzeko hezkuntza ikastaro berriak antolatu ditu DEBEMENek

Mendaroko bizkotxoak egiten irakatsiko zaie, besteak beste

Joan den urrian eman zion hasiera DEBEMENek "Heziketa Plangintza 1997/98" izeneko proiektuari. Helburua, Deba Beheko landa garapena bultzatu eta indartzea da eta baserrietan bizi diren entakuntzei ikastaro desberdinak entanez, enpresak sortu eta lan munduan sartzea. Aipaturiko ikastaroak "Izarraitz Bizirik" programaren barruan daude.

Asier Albizuk, DEBEMENeko gerenteak, eta Birjini Andresek, ikastaroen arduradunak, asteartean eman zuten prentsaurrekoan datozen hilabeteetarako antolatu diren ikastaroen berri eman zuten. Hasteko, ikastaroak egin nahi dituzten emakume guztiek "Elikagaien Higiene eta Kalitate" ari buruzko ikastaroa egin beharko dute lehenik eta behin. Izan ere, aurrera begira era honetako enpresaren bat sortzeko, beharrezkoa dute elikagaiak manipulatzeko karneta jasotzea eta ikastaro honetan landuko dira horretarako urratsak. Honako ikastaro honek 20 orduko iraupena izango du, abenduaren 29an hasi eta urtarrilaren 14ra bitartean. Ondoren, beste zenbait ikastaro izango dira, horien artean, "Mermeladak eta menbrilok artisau erara" (10 ordu), "Mendaroko Bizkotxoak" (20 ordu), "Ogia artisau erara" (20 ordu) eta "Nekazal gestioa" (30 ordu). Guztiak izango dira urtarril eta martxo bitartean, baina data desberdinetan. Nahi izanez gero, bat baino gehiago egiteko aukera ere eskaintzen da.



Birjini Andres eta Asier Albizu prentsaurrekoan.

Emakume baserritarrel zuzendua

Aurkeztutako edozein ikastarotan izena eman nahi duenak abenduaren 19a baino lehen DEBEMEN elkartera jo beharko du (Nafarroa enparantza, Elgoibar) edo, bestela, 74 40 67 zenbakira deitu. Ondoren, abenduaren 20an hain justu, ikastaroen aurkezpena egingo da Lasturko ludotekan goizeko 10:30ean eta beharrezkoa izango dute guztiek bertan izatea, gauzak zehaztu eta ordu-tegia finkatzeko.

Aurretik Iora sikuei buruzko ikastaroa egin zen eta Birjiniaren hitzetan, "arrakasta handia izan zuen. Hasieran 12 pertsonarentzat zegoen mugatua, baina azkenean bi talde egin behar izan genituen eta guztira 25 pertsona aritu ziren". Gaur egun egurra lantzen ikasten ari da beste emakume talde bat.

Ikastaro hauek emakume baserritarrei zuzenduak dauden arren, "kaleko norbaitek interesa azalduko balu aukera izango luke, beti ere baserritarrek lehentasuna dutela azpimarratuz", adierazi zuen Asier Albizuk, "are gehiago, aurreko ikastaro batean gizonezko batek ere hartu zuen parte".

Datozen ikastaroetarako egurrezko labea eraikiko du DEBEMENek Mendaron, "ikastaroak aurrera ateratzeko beharrezkoa izateaz gain, gerora, enpresa sortzeko ere ezinbesteko elementua baita". Ikastaroen batez besteko kostua 300.000 pta.koa da eta ikasleek 5.000 pta.ko finantza jarri behar dute, "halere, %85eko asistentzia betetzen duenari dirua bueltatu egingo zaio". Ikastaroen ostean, enpresa sortzeko bidean ere jarripena egingo du DEBEMENek.

ELENA

ileapaindegia


Depilazio Elektrikoa



Mandida S.L. Egurrak

Domingo Arrizabologa

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA



Juan Mugerza, 3. 72 74 12 56 - (mugikor.) 909 53 23 83

BEKOETXE baserria

Bekoetxe baserria 1727. urtean eraiki zen, atarian bertan jartzen duen idatzia-aren arabera. Federiko Muguruza Lersundi bertan jaio zen XIX. mendean. Muguruza, Cuban Matanzaseko Gobernadore izan zen baita Infanteriako koronela ere. Hona hemen Bekoetxe baserriari buruz dauzkagun datuak. Halere, gure asmoa gaur egungo biztanleen eta euren bizhoduaren berri ematea da eta horretarako Rosa eta Juanitorekin hitz egin dugu.

Oraindik ere gurdia eta pare bat idi dituzte lanerako Bekoetxe baserrian. Rosak azaldu digunez, "anaixek ez dakixe txofer eitzen eta bildurra ematen diue, ez dia sekula atrebidu. Nik badakat kotxia kalera bajatzeko baina nahixao dot traktorarik ez eukitzia ze bestela lan gehixo izango neuke. Belarra nik ebaten dot, lurra eman ere... Nik dana ezin dot ein, etxeko erraminta guztiak ezingo ditzut nik ibilir. Juanitoren hitzetan, "neri idixak gustatzen jataz. Holaxe, beti ohixu gera idixekin eta oin ez gera ba kanbixatzen hasikor. Bekoetxera iritsi ginenean Juanito gurdia belarrez betetzen ikusi genuen eta alde egin genuenean behrela ekin zion berriz ere lanari.

Odriatarrak Guenetxeberrri baserrian bizi izan ziren duela 36 urte Bekoetxera joan ziren arte. Esne behiak dituzte eta hortik ateratzen dute bizi-modua. "Gurelari saltzen diogu esnerik gehixena eta bestia kalia partitzen dou. Bi egunetik behin bajatzen gea". Gainera, bezero fijoak mantentzen dituzte urte askotatik, "berrixak ere ein ditzugu baina oin jendiak nahixao izaten dau kajako esne hori". Esne-jaisteko makina baduten arren eskuz egitea nahiago dute, "hasi, hasi ginan baina makiniakin einda behi batzuk ez zebe nahi izaten eta aldrebasa zan. Eskuakin askoz hobeto ibiltzen gea eta holaxe segiko dou".

Feria eta kalea

Hil bukaeran Elgoibarren izaten den feriara jaistea gustatzen zaie odriatarrei, "ahal daniel behintzat. Ze jenero dauan ikusi, jendiakin berba ein, akaso traturen bat lotu...". Gustura ibiltzen dira, "ohixura politxa da eta Gabonzaharreku, benetan ederra".

Baserrian gustura bizi diren arren, kaleko bizimoduari ez diote pega han-



Idi-probak

Bekoetxe baserrikoak ez dira sekula idi-probetan ibili nahiz eta lanerako pare ederra duten. Halere, Juanitok bitxikeria bat kontatu digu: "behin, Lekunberri zanak probau zitxun gure idi bat eta hango bat. Lelengo ezetz pentsau zaban, guria modu batera eta beria beste batera ohixuta zauan eta, bata ezkerreko eskuakin eta bestia eskumakuakin, esaten dan bezela. Baina, azkenian, probara jutia pentsau gendun, sekula elkarrekin ibili beko idixak juntauta. Bildurra-kin jun ginan, idixekin sekula ez dao jakitzerikan zer pasauko dan eta, baina, suertia euki gendun eta lelenguak etara zebe. Gure idixak urten zian irabazle".

*** III ***

dirik ikusten, ez behintzat Rosak, "ni ointxe bertan bajauko nitzake. Oin ere, laguna dakat kalia eta askotan bajatzen naiz. Asko gustatzen jata kaleko girua eta bizimodua, oso ondo konpunduko nitzake kalia, dudaripe". Juanitok, halere, ez dauka hain garbi, "kalia oin aspertu eingo nitzake, baserrixan beti dao Iana eitxeko eta denboria errezo juten da. Oin, urtietan aurrrera guaz eta akaso Iaster hasi biharko gea pentsatzen zeozer eitxia".

Nola edo hala, beste era batera ohitu diren anen, noiz edo noiz baserriko lotura laga eta beraientzat denbora pixka bat hartzea ez legoke gaizki, "ni hondartzan azkeneko bider soldautzan egon nitzan, Santanderren tokau jatan eta", aitortu digu Juanitok. Rosa, berriz, "ahal doten guztietan, uda partian, baserriko lanak azkar gobernau eta plaiara jutia gustatzen jata. Igerixan ez dakitx baina bainua hartu eta pasivan ibiltzia asko gustatzen jata".

BEKOETXE

Auzoa: San Roke

Bizilagunak: Juan Odria, 66

urte: Julian Odria, 59 urte eta


Rosa Odria, 49 urte.

Lur hedadura: 8 hektarea

Esplotazioa: Baratza,

- etxerako esne behiak, txahalak eta idiak.

ERMUA BERANO - ERMUA



Ibilbidea

Ermuko Urko harrobian, Okin-Zuriko auzoan hasiko dugu txango hau. Aipatu auzoan dagoen aparkalekuan autoa lagata, harrobira doan pista jantituko dugu.

al 2 Harrobira iristean, Okin izeneko errekararen eskumako aldetik gorako bidea jarraituko dugu. Hemen, errekararen natura aprobetxatuz Udalak egokitutako igerrilekua ikusiko dugu.

im 3 200 metro gorago bidea bitan zatitzen da. Eskumako bideak "Matie" baserrira darama.

in 4 Zuzen jarraitzen duen bidea hartuko dugu. Ordu erdi pasa eta gero, Mallabiko Berano Txiki auzora iritsiko gara. Hemen atsedena har dezakegu eta Lurki Deunaren ermita bisitatu.

Berano Txiki auzoaren sarreran bidegurutze bat ikusiko dugu eta hemen ezkerrera hartu on-

doren, 100 metro inguru ibili eta gero, ezkerrean dagoen beste pista bat jarraituko dugu.

im 5 15 minutuko ibilaldia egin ondoren errekatxo batera iritsiko gara. Errekatxoaren eskuman bidexka bat dagoela ikusiko dugu eta hortik segituko dugu ibilbidea. Uda garalan, bainatzeko benetan aproposak diren ur potzuak topatuko ditugu.

■ 6 Hirugarren ur putzura ailegatzean errekatxoa zeharkatuko dugu pinadiaren erdian dagoen pistara iritsi arte. Errekatxoa oinen azpian geratuko zaigu. Pistara iritsi bezain laster bidegurutzean izango gara eta ezkerrera dagoen bidea hartuko dugu. Eskumako bidetik joanez gero, 100 metro ingurura freskatzeko eta ura edateko iturria dago.

■ 7 Ezkerreko bidetik joan eta bost minutu-
ra bigarren bidezurutzera iritsiko gara. Bide na-

gusitik jarraituko dugu Berano auzora ailegatu arte. Bertatik Mallabiko, Ermuko eta Anboto naendiko paisaia zoragarriak ikus daitezke.

■ 8 Pistak aurrera egin ahala, zelaietan tartekatuak dauden baserri dotoreak aurkituko ditugu. Era berean, pagoz inguratua dagoen San Antonio ermita ere bisita daiteke.

■ 9 Azken bide hau jarraituz eta malda handi bat jaitsi ondoren, errepide komarkalean izango gara berriz. Errepidearen ezkerreko aldetik joanez gero, Ermuko hilerria inguratuko dugu, Hanbreko industrialderaino iristen den Ego erreka eskuman utziz. Bost minutu-
ra helduko gara Okin-Zuri auzora.

Ibilaldiaren iraupena ordu bat eta hozeita hamar minutukoa da. Ibilaldi hau bizikletaz egiteko ere oso aproposalt.

Kontuan izatekoak

A. Okin errekatik gora igotzen garenean jarlekuak eta mahaiak dituen askaltokia aurkituko dugu, baita udako egun gorietan bainatzeko gogoia pizten duen igerrilekua ere.

B. San Antonioko ermitaren parean dagoen pago zoragarria ikusiko dugu.

Iturria: Deba Deheko eida turistikoa.

Abenduan sartu berri gara eta dagoeneko Gabon garaia gero eta gertuago dagoela pentsatzen hasita gaude. Gabonak aipatzerakoan herritar talde batek urtera antolatzen duen Jaiotza ikusgarria dator-kigu burura. Egunotan jo eta su ari dira Jaiotza muntatzeko lanetan. Genzma Monreal ere zeregin horietan dabil. Ofizios margolaria da eta eskulanak ere egiten ditu. Egun batean, Jaiotza egiten zutenek Gemmari deitu zioten bere laguntza eskatuz. Duela 11 urte izan zen.

GEMMA MONREAL

"Datorren urteko jaiotzan Elgoibarko lekuak ikusiko ditugu"

- Kuadroak pintatzetik Jaiotzean lan egitera.

Bai, duela 11 urte Jaiotzean lan egiten dutenak harremanetan jarri ziren nirekin laguntza eskatzeko. Margolaria naizenez ondo etortzen zitzairen arlo hori ezagutzen duen norhait eurekin lanean aritzea. Gaur egun dozena bat lagun gaude. Hauxe aparte ere baude inon agertu ez eta izugarriko lana egiten duten pertsonak.

— Kuadrila giroa duzue.

- Bai, lagun artean aritzen gara eta hori igarri egiten da. Bakoitzak bere lana dauka: elektrizitatea, muntaiak... Nik esaterako, etxeak egin eta margotzen ditut, paisaia eta ingurunea presatzen dut, goroldioa batean eta bestean jarri, irudiak margotu eta jantzi...

— Oso konplexua al da Jaiotzaren mekanismoa?

Oso. Jaiotza automata batek mugitzen du eta txartel elektronikoak sartzen di-

ra bertan. Oso konplexua da dena: irudiak mugitu ahal izateko mekanismoa, etxeetako tximiniak egitea... Pentsa, benetakoa kea botatzen dute! Askotan, gutxien uste duzun momentuan gauzak izorratu egiten dira, bonbilak apurtu, erreka urak ihes egiten du... Oso lan gogorra da eta batzuek urte osoa dedikatzen diote.

— Aurten berrikuntzarik ikusiko dugu?

- Noski. Erromatarren tenplo bat egin dugu, zutabeekin eta arkuekin. Polistileno egina dago eta harria baltz bezala margotu dugu, benetakoa ematen du. Zutabeek ere marmolezkoak dirudite. Jaiotzaren ezker aldean dagoen herria ere berri egin dugu eta Jesus haurraren jaiotza erdian kokatu dugu. Honez gain, ur-jauzi ikusgarri bat eraiki dugu igeltsero batzuen laguntzaz. Zemento kilo mordoa erabili behar izan da. Irudi askori

itxura aldatu diegu eta beste batzuk berriak dira: zahatit edaten ari den mozkorra... —Zenbat irudik dute mugimendua?

Hogeitahortek. Pentsa zelan diren gauzak: lehenengo jaiotzak irudi bakarra zeukan mugimenduan, 'Pepi' izeneko garbitzailea. Gure maskota da.

— Datarren urterako zer duzue esku artean?

- Duela bi urte hasi genuen proiektu bat da, benetan polita. Elgoibarko eliza, Txankakua, erremintariaren etxea, eta ibai aldeko etxeak jarriko ditugu jaiotzean, atzeko aldean Karakate mendiarekin. San Jose, Maria eta Jesus eliz-arkupeetan ipiniko ditugu. Elgoibarko baserri zaharrenak egin nahi ditugu, elgoibartarrak baserri jantziak... Eskulanak gogoko dituztenen laguntza beharrezkoa izango zaigu, beraz, elgoibartar artistak Jaiotzean gurekin lan egitera etor daitezen animatu nahi ditut. Gauza asko lotzeke daude oraindik.

—Zein, esaterako?

- Lokalarena. Leku-Ederreko lokala salgai dago eta norbaitek erosiz gero, gu kalera joan beharko gara. Nire ustez, Jaiotzak elizaren lokalen batean egon beharko luke. 52 metro karratu ditu Jaiotzak eta handiago egiten ez badugu espazioarengatik da. Lokal egonkor bat eduki beharko luke, muntatzen eta desmuntatzen ez ibiltzeko.

—Esfortzaker merezi al du?

- Noski. Jaiotza begiratzeko dagoen haurraren irribarra ikustean edo, Gabonahar ferian sortzen diren ilarekin harrena betetzen zaigu. Nola ez du, bada, merezi ko!

EESTEAK ESANA

"Besteak bezala, afizios egiten du lan Jaiotzean. Gemma detalle artistikoez ardiratzen da"
NICO MOLINA, Jaiotzako lankidea



•••• JAIOTAKOAK •4,••

- Jaime Gabilondo Aranzabal (Azaroak 8)
- Irati Juaristi Gurrutxaga (Azaroak 9)
- Andoni Intxausti Vergel (Azaroak 13)
- Jon Konde Uriarte (Azaroak 24)

•••• EZKONTZAK ••••

- M. Eugenia Gonzalez Elkoro-Irube eta Miguel Ruiz de Gauna Alzibar (Azaroak 15)
- Natalia Aizpitarte Astigarraga eta Cristobal Alvarez Estarta (Azaroak 22)
- Sonia Mugerza Iriondo eta Roberto Rojo (Azaroak 29)
- Alberto Etxabe Ezenarro eta Itziar Otaegi (Azaroak 29)

•••• HILDAKOAK ••••

- Serafin Freitas Prol, 30 urte (Azaroak 8)
- Julian Etxeberria Zubiaurre, 58 urte (Azaroak 14)
- Fidencia Ltipez Artola, 65 urte (Azaroak 14)
- Nieves Monasterio Etxeberria, 77 urte (Azaroak 14)
- M. Lourdes Arnaiz Gonzalez, 33 urte (Azaroak 17)
- Pedro Gorriti, 38 urte (Azaroak 27)


Maria Ostolaza Egaña

(1968-1980)



- 1908ko otsailaren 2an jaio zen Itziarko Las-tur auzoan, Murgitnendi baserrian.
- Bederatzi anai-arreba ziren, bost mutil eta lau neska. Bera hirugarrena zen.
- Debako Iriondo jatetxean hasi zen zerbitzari lanetan. Azken urteetan, ezkondu zen arte, hain zuzen, sukaldari bezala aritu zen.
- Remigio Iriondo elgoibartarrarekin ezkondu zen. Baina 1939ra arte ezin izan zuten ezkondu, geniate zibila amaitu arte. Elgoibar-erra, San Antotin auzora etorri ziren bizitzera.
- Hiru udatan sukaldari bezala egin zuen lan Debako "Visi" hotelean.
- 1942an Iriondo taherna erosi zuten Elgoibarren. Remigiok San Pedroko fabrika lan egiteari laga zion tabernako zereginei burubelarra ekiteko.
- Hiru seme-alaha izan zituzten, seme bat eta bi alaba.
- Sukaldari bezala egin zuen lan tabernan bizi osoan. Bazkariak eta afariak zerbitzatzeko eta tahernako lanetan laguntzeko hiruzpalau neska zituzten. Izan ere, bazkari eta afari mordoska ematen zuten egunero, inoiz 200 ere izan ziren.
- Errepide nazionala taberna aurretik pasatzen zenez, kamioi eta auto gidariak oso sarri geratzen ziren hertan otordua egiteko.
- Urtean behin, familia osoa Bilbora joaten zen trenean San Felieisimoko elizam hisitan. Gaur egun ohiturarekin jarraitzen dute.
- Seme-alabak ezkondu eta alargun geratu zenean, otorduak emateari laga zion eta taherna bezala funtzionatzen jarraitu. Gaur egun seme-alabek jarraitzen dute tabernarekin.
- 1980ko azaroaren leian, Domusantu egunean hil zen 72 urterekin.

Juanito Gorostiza



ETXEBERRIA.

Hileta zerbitzu

OSOA ETA 24 ORDUKOA

KUTXAK TRASLADOAK - KOROAK

NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI

zuzenduriko zerbitzuak.

Donostia eta probintziako eritetxe zentroetan ere bai.

Santa Klara, 16 20 870 ELGO111M b m,
Tel.: (biltegia) 74 13 27 (etxekoa) 74 01 17 - 74 16 56 (mobila) 908 77 07 01



Aste honetako en'etratua **Agapita Soraizek** laga digu. Altzolako bainuetxearen baratzean aterata dagoela esan digu, 1930. urte inguruan. Argazkikoak, bat izan ezik, bainuetxean lan egiten zutenak dira. Ezker aldean agertzen den emakumea, Emilia, oinez joaten zen Altzolara oterra batekin buruan fruta eramatera. Ondo begiratu gero, ezkerretik hasita hirugarrenak daukan pikardia gestua zergatik den ikusiko duzue: esku artean zigarro bat du.

kumea, Emilia, oinez joaten zen Altzolara oterra batekin buruan fruta eramatera. Ondo begiratu gero, ezkerretik hasita hirugarrenak daukan pikardia gestua zergatik den ikusiko duzue: esku artean zigarro bat du.

Ezkerretik hasita: **Emilia (t) elgoibartarra**, **Rufina Arregi Arrasatekoa**, **Gkoria Iriondo** altzolaterra, **Maritxu Plazentziakoa**, **Vitoria Gorroño** Durangokoa, **Mari Cruz Beristain** Zurnaiakoa **(t)**, **Felisa Maiztegi** Plazentziako **(s)**, **Teresa Unzilla** Elgoibarkoa **(*)**, Otxandiokoa **(t)**, **Juana Torregarai** Altzolan bizi zena **(t)**, **Agapita Soraiz** eta bainuetxean zeuden madrildar baizuen umea zaintzen zuen **neskamea**.

Aurren dauden hirurak: **Ignacia Mendikute** Mendarokou, honen ahizpa **Juana Torregarai** eta **Karmelo Isasti** altzolaterra.

POL-POL

T ABERNA

San Bartolome, 19 - Tel. 74 02 74 - ELGOIBAR



EMMECIII

Errosario, 30
Tel: 74 02 84 Elgoibar

- * IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- * MULTIKOPISTAK
- * FOTOKOPIADORAK
- * PLANOEN BIRREGILEAK
- * ERLO.IU INDUSTRIALAK
- * MARRAZKETA MATERIALA
- * INFORMATIKA
- * FAXA

KIROL ALBISTEAK

• Kuadrilarteko Txapelketarako izen-ematea

Udal Kirol Patronatuak Gabonetako VII. Kuadrilarteko Txapelketarako izena emateko epea ireki berri du. Txapelketa abenduaren 22tik 31ra bitartean jokatu da. Parte hartzeko gutxienez 5 laguneko taldeak sortu behar dira eta 5.000 pta. ordaindu izena ematerakoan. Hilaren 22an saskibalo partiduak hasiko dira; 23an areto futbola eta pala; 26an txirringarritza lasterketa izango da eta 29an krosa. Finalerdiak 30ean jokatu dira eta finalak, hilaren 31n, Urtezahar egunean. Izena emateko epea hilaren 16an bukatuko da.

• Benboraldi hasiera Igeriketa taldekoentzat

Elgoibarko Igeriketa Taldeko neska-mutllek 97-98 denboraldia hasi zuten pasa den zapatuan Arrasaten izan zen txapelketan. Elgoibarko Igeriketa taldeko lau ordezkari hartu zuten parte: Ines Segura, Aingeru Osoro, Esther Ajobita eta Aitor Gisasola, Guztiek kadeteen kategorian jardun zuten, 50 m., 100. krol eta 200 m. bizkar estiloetan. Emaizak ezin hobekak izan ziren, denek hobetu baitzituzten euren markak. Ines Segurak, gainera, bere seriea irabazi zuen. Larunbatean, hilak 6, alebin mailako igerariak Azpeitian izango dira waterpolo jardunaldian parte hartzeko.

Eskolarteko Xake Txapelketako sariak badute irabazlea

Nazioarteko Xake Txapelketaren bueltan, kirol honen inguruko zaletasuna bultzatu nahian jokatu zen pasa den zapatuan Eskolarteko Xake Txapelketa azkarra. Zubi-Ondo Xake Elkartearen egoitzan jokatu ziren xake saioak; bost minutuko partidak izan ziren jokalaria bakoitzeko benjamin eta alebin mailetan. Sari ba-

naketa atzo, osteguna, izan zen Kultur Etxean, Nazioarteko Xake Txapelketaren sari banaketarekin batera. Lehen hiru postuetan sailkatutako hurrek, sariak nazioarteko xake maisuen eskutik jasotzeko aukera izan zuten. Sari banaketaren argazkia datorren astean argitaratuko dugu. Hauek izan ziren lehen hiru sailkatuak:

BENJAMINAK ALEBINAK

- 1- Aitor Fernandez
10 puntu
- 2- Aitor Arrillaga
9 puntu
- 3- Zigor Arenillas
8,5 puntu

- 1- Iker Arrillaga
7 puntu
- 2- Iker Astigarraga
5 puntu
- 3- Iñigo Canales
4 puntu

L.E H 1. ONIKE TA,

Juan Mugerza Nazioarteko Krosaren LV, edizioa

Joan den asteko galderen erantzunak hauek dira:

a) Jon Brown, b) Urtarrilaren 4an, c) 1988an

Aste honetako irabazlea **AINHOA UMBETXERERRIA** izan da eta, beraz, kroserako bi sarrera irabazi ditu. Gogoratu hiru asteetako irabazleen artean Softlanek emandako **INTERNETERAKO URTERETERAKO KONEXIOA** eta **IVIODIEfla** zozketatuko ditugula,

Aurten Interneten krosari buruzko berri guztiak
(historia, palnraesa, baita Elgoibarko informazioa ere—)

SAR ZAITEZ KROSAREN SAREETAN!

interneteko halbidea: <http://www.softlan.eorn/eross-mugerza>

Posta elektronikom egotold@softlan.com

6511C1-----11-101-1C-I-1Mte-117-11-----1-11-11

ASTE HONETAKO GALDERAK:

1- Nor izan zen senior emakumezkoetan iazko edizioko irabazlea?

- a) Fernancia Ribeiro
- b) Julia Vaquero
- c) Hiromi Suzuki

2- Noiz egin zen 1. Nazioarteko krosa?

- a) 1951n
- b) 1970ean
- c) 1963an

**3- Zein urtetan suspenditu zen krosa elur-
rrengatik?**

- a) 1975ean
- b) 1990ean
- c) 1981ean

**Erantzunak zein diren baldin badakizu
ekarri txartelak BARREnera asteazkena
baino lehen.**

zen abizenak: Tet:



Nicolas Jimenez elgoibartarra, Gipuzkoako karate txapelduna

Micolas Jimenez karateka elgoibartarra **1** N rrak paper oso txukuna bete zuen pasa den domekan izan zen Gipuzkoako Karate Txapelketa ofizialean. Kumite edo borrokan, 75 kiloz azpiko kategorian eta 18 urtera arteko atalean, Gipuzkoako txapelduna izan zen. Kata edo teknikan, aldiz, Gipuzkoako txapeldun izateko aukera handia izan bazuen ere, azkenean irabazle-arengandik hamarrek batera geratu eta bigarren postuarekin konformatu behar izan zuen. Duela pare bat hilabete, Nicolasek Gipuzkoako txapela lortu zuen promozio txapelketan. Oraingoan berriro erakutsi du Gipuzkoako onenarikoen artean dagoela. Datorren domekan, hi-

lak 14, Arrasaten izango den Euskadiko Karate txapelketan arituko da. Iaz bosgarren postua lortu zuen txapelketa honetan.



22 elgoibartar Santurtzi-Bilbo lasterketan

Duela pare bat aste **Santurtzi-Bilbo** lasterketa izan zen. Urteik urtera elgoibartar korrikalarien kopurua gorantz doa. Aurten, esaterako, 22 elgoibartarrek hartu dute parte lasterketan. Aipatzekoa da emakumeen parteahartzea oso handia izan zela. Lehenengo emakume elgoibartarra, Maria Eugenia Gonzalez izan zen, bosgarrena beteranoren kategorian. Gizonetzkoetan lehenengoa, berriz, Iñaki Konde izan zen, bederatzigarrena beteranoetan.



Lasterketan parte hartu zuten elgoibartar batzuk

Bestetik, joan den igandean, Frantziako Arcachon herrian izan lasterketan Carmen Perea elgoibartarra izan zen irabazlea.

Izzarlouym

1- Iriaki Konde	53'36"	12- M. Eugenia Gonzglez...	1h06'31"
2- Santiago Gonzglez.....	58'02"	13- Jose Ignacio Izagirre....	1h06'50"
3- Jesus M. Makazaga	58'19"	14- Francisco Iglesias	1 h 10'22"
4- Juan Ferngndez.....	59'10"	15- Constan Nuriez.....	1h11'19"
5- Jose Antonio Iturrizar ...	1h04'27"	16- Pilar de la Lama	1h11'50"
6- Francisco Frias	1 h04' 34"	17- Andres Alberdi	1h12'54"
7- Iñaki Arrieta	1h04' 37"	18- Iriasio Garmendia	1 h 12' 55"
8- Iñigo Belaustegi	1h06'02"	19- Izaskun Estibariz	1 h15' 19"
9- Iirilgo Ansola	1 h06' 04"	20- Arrate Zubia	1h24' 16"
10- Jesus M. Lertxundi ...	1h06' 07"	21- M. Jose Estibariz.....	1 h24 ' 20"
11- Julian Garda	1 h06' 30"	22- Lourdes Zubiaurre.....	1h25'22"

MAIT-ZAK 11111

Futbola

Elgoibar 1- Bermeo **1** (Oho. juh.)
 Elgoibar 2- Bergara **3** (1. juh.)
 Elgoibar 0 - Corella **2** (Neskak)
 Union Txiki 1- Elgoibar **1** (Inf.)
 Bilbo Athletic **2- Haundi** 0
 Tolosa 0 - Elgoibar **1** (Kad.)
 Zarautz 0- Elgoibar **0** (2. erreg.)

Es kubaloia

Zarautz 7- Unceta Elg **23** (Kad. nes.)
 Pagoaga Elg. 19 - Zarautz **8** (Jub. nes.)
 Elgoibar 21 - Bergara **24** (Seniurrak)

Areto futbola

Elgoibar 0- Hosfrinor **6** (1. maila)
 Elgoibar 0 - Moulinex **6** (Auton.)

Futbitoa

Txin Txoja 15 - Kunta Kinte **5**
 Peyperuiu 1- Aizkorak Mendibil **13**
 Berrogei Duro 0- Lojantxl **3**
 Maser 2 - Karkis **3**

AGE NDA

Futbola, Mintxetan

Larunala, 6
 12:00 Elgoibar - Eibartarrak (2.erreg.)
Igandea, 7
 16:00 Elgoibar - La Salle (Kad.)
Aslelehena, 8
 11:00 Elgoibar - Ordizia (Int.)
 17:00 Haundi - Zamora

EMAITZAK

(Azaroak 29, 4. jardunaldia)

ARETO FUTBOLA


■ Benjamin mulilak ■
 Pilar Bulls 0- Ikas Bihurri **6**
 Ikas Gorri 0- Ikas Bulls **11**
 Ikas Tximista 1- Herri Otsoak **1**
 Pilar Lakasitos **2- Mendaro A 2**

01 Benjamin neskak III

Pilar Txiki 1- Ikas Hartz **1**
 Ikas Bizkor - Ikas Beleak **11**
 Pilar Usoak 0 Ikas Ortazar **0**

SASKIBALOA

■ Alebin mutilak ■
 Ikas Inpernu 2- Mendaro B **18**
 Herri Boomerang **36** - Pilar Flash **0**
 Pilar All Star **10** - Ikas Gol **12**
 Ikas Otsokoak **14** - Herri Manchester **12**
 ■ Alebin neskak ■
 Ikas Txingor 2- Ikas Laino **26**
 Herri Argi **6** - Ikas Planet **6**
 Pilar Kas 0- Pilar Girls **22**



Ipin gomendagarriak

Frein argitaletxeko Iñaki Aldekoak munduko literaturako hamabi ipuin bildu ditu "Ipuin gogoangarriak" izenburupeko liburuan. Izenburu hori ez datorkio gaizki XIX eta XX. mendeetako idazle handienetako batzuk jasotzen dituen bilclurna honi. Izan ere, liburu honetan aurki ditzakegun narrazioen artean, ipuina, berez den genero propioaren erakusle ederrak ditugu, ipuingintzan zeharo trebeak diren egileek idatzitako horietako zenbait, esaterako, Guy de Maupassant, Txekhov edo Borges eta Cortazar-ek, besteak beste. Ipuin bilduma honetan gai, giro edo estilo ezberdineko errelatoak topa ditzakegu. Eta haien sortzaileen artean, literaturaren historiako izen ospetsu eta garrantzizkoak daude gainera: Charles Dickens, Franz Kafka edo Jack London, esate baterako.

Ez dago aitzakiarik. Ipuin sorta ederra dugu honakoa eta egin dezakegun hoberena horiek irakurriz gozatzea da, aukera ematen dute eta. Honakoak literaturazaletasuna pizteko moduko narrazio eta itzulpenak dira. Ipuinazale denak hemen du irakurri beharreko liburuak. Ez zaio damutuko.

Jort Eugi


Iñaki Nrea Armendia Alicanteko ipuin lehiaketan saritu dute

Alvaro Bermejo idazle donostiar ezaguna izan da irabazlea

Bi idazle gipuzkoar saritu dituzte Caja de Ahorros del Mediterraneo delakoak antolatzen duen Alicanteko "Gabriel Sijr elaberri motzeko lehiaketan. Alvaro Bermejo izan da irabazlea eta akzesita edo aipamen berezia, Irlaki Pe'rez Armendia elgoibartarrak merezi izan du. Sariaren zenbatekoa 150.000 pta.koa izan da. "Del destino y sus heraldos" izenburupeko lana aurkeztu zuen lehiaketara Iñakik eta berak esan bezala, "elaberri motz baten itxura baino, ipuinarena duela esango nuke. Berrogeita hamar orrira arteko lanak aurkez zitezkeen". Sari hau "orain arteko inportanteena da. Estatu mailakoa izan da eta Alvaro Bermejo irabazlea izateak beti ematen dio sona handiagoa".

Gaur egungo Errusian dago kokatua ipuina eta Leninen momiarenekin zaindaria da protagonista. Leninen irudia desagertzera doa eta zaindaria lanik gabe gertatzeko arriskua duela ikusten du. Horrelako aldaketa batek suposatzen duenaren inguruan hausnarketa egiten du Iñakik, ikuspuntu politikoa ere ikutzen duelarik. "Ikutu ironikoa eta erromantikoa ere badauka. Amaieran planteatzen dena da, egunen batean Leninen irudiaren ordez Michael Jacksonen figura ikusiko dugula Errusian".

Iñaki Perez Armendiak beste sari bat jaso du aurtengo urrian Zaragozako lehia-



keta batean. "Ipuina liburu batean argitaratu zuten; horixe zen saria". Iaz ere, beste bi lehiaketatan saritu zuten Iñakiren "Saguaro artean" izenburuko ipuina. Debako Tene Mujikan eta Zumaiako Julene Azpeitian sari bana jaso zituen ipuin honiek. Iñakik bai euskaraz bai gaztelaniaz idazten du, baina azken hizkuntza honetan dauka egina literatur produkzio handiena. Poesia eta literaturan irabazi dituen sariengatik ezaguna bada ere, lanbidez irakaslea da; kimika irakasten du Eibarko Armeria Eskolan.

TX11111

5111»winz

BELTZ

San Frantzisko, 38

OIERKI IGOGAIWAK

Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

☎ (943) 20 35 15 e ABERIAK (943) 20 35 15

Bista Eder, 11 (sotanoa) e 20600 EIBAR

Idoia
Arrillaga
PODOLOGA

CENTRO PODOLOGICO
1331ILTZEN
ZENTRU PODOLOAKOA



11-11

Ilbitarto.plaztr thtTel: 74 36



Ald izka,

AldekAnAk

Hiru egun jai ditugu aurretik. Abenduko zubia da eta aspaldiko urteetan gertatu bezala, aurten ere Durangoko Azokak zabaldu ditu ateak. Ez da, ez, aukera txarra bertatik buelta bat eman, merkaturatu diren nobedadeen berri jaso, zerbait erosi eta irakurketarekin disfrutatzen. Aste honetan azaletik heidu diogu gai honi baina liburuak baino gehiago, gure gazteek ea zein eratako aldizkariak irakurtzen dituzten jakin nahi izan dugu. Izan ere, alperrentzat argazkiz eta testu gutxiz beteriko aldizkariak izan daitezke irakurtzaletasuna lantzeko lehen urratsa, ezta?

Ander Loiola

- **Irakurtzea gustatzen zaizu?** - Batere ez. Eskolan bialdutako liburuak bakarrik baina irakurri ein bihar eliazelako, bestela, nigatik batere ez.

- **Zein dira, bada, zure afizioak?** - Pelotia, futbola ta kirolak eta holako gauzak generalian.

- **Egunkaria ere ez al duzu irakurtzen?** - Bai, "Diario Vasco" eta astebukaeretako suplementuak. Bueno, BARREN ere bai. Baserrixan bizi naiz eta hara ekartzen dabena bakarrik irakurtzen dot.


- **Baina artikulak irakurtzen dituzu ala argazkiak begiratu?** - Lelengo argazkixak begiratzen ditxut baina gero, ezagunen bat agertzen bada edo gaixa interesatzen bajata, irakurri ere eitxen dot.



Gorka Mir

- **Zein aldizkari irakurtzen duzu?** - Normalian "Diario Vasco" egunkarixa irakurtzen dot egunero baina rebistak oso gitxi. Astero "El Semanal" eta BARREN baina bestela gehixegi ez.

- **Eta kirolari buruzkoak?** - Badaude futbolari buruzkuak eta hola baina neri ez



jataz gustatzen. Zeozer jakitzeko nahixao dot egunkarixa irakurri. Horoskopua ere egunero irakurtzen dot eta batzuetan koinziditzen dau.

- **Erosteotan, zein aukeraturuko zenuke?** - Motorrari buruzkuak eta hola gustatzen jataz baina normalian lagunen batek ekartzen badau zeozer hari botatzen diot begirada bat eta listo.



Ane Zubia

- **Kontsumitzen al duzu aldizkaririk?** - Erosi gehixegi ez ditxut itxen baina domeketan periodikuakin etortzen dan "El Semanal" eta zapatuetan telebisiokua eta BARREN begiratzeko ohitxuria dakat.

- **Irakurri egiten al dituzu?** - Lelengo dana begiratzen dot eta artikuluren bat gustatzen bajata gero irakurri. Horoskopua ere, nahiz eta ez doten sinisten, badaukat irakurtzeko ohitxuria.

- **Bestelako aldizkari espezializaturik?** - Zientziatakuak, "Muy Interesante" eta holakuak batzutan bai eta "kotleokuak" gitxitan. Igual Infantaren bat edo ezkondu dala eta argazkixak ikusi eta parre pixkat itxeko erosten ditxut.

- **Modari buruzko aldizkariak?** - Ez, nere amak erosi zaban behin bat kamiseta bat erregalatzen zebelako baina bestela ez. Rebistetan diru gitxi gastatzen dot.

Aitziber Romero

- **Zein afizio duzu irakurketari dagokionean?** - Zapatuetan eta domeketan egunkarixakin etortzen dan semanala eta suplementua irakurtzen det, etxian egoten dia eta.

- **Aldizkariren baten harpideduna al zara?** - Bai, oin dala gitxi apantau naiz "National Geographic" aldizkarixa jasotzeko etxian baina ondiok ez jata ailegau zenbaki bat bera ere.

- **Aldizkari arrosak gustatzen al zaizkizu?**

- Dentistiana eta hola juten naizenian, kontsultan zain egon bihar banaiz edozer irakurtzen dot. Amak "Pronto" erosten dau eta etxian dauanez irakurri eitxen dot, nahiz eta nik ez nukeen erosiko.

INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia:

Larnaldiak	461111
Txanda hartzeko	743354
Planning-a	742950
Alkoholiko Anonimoak	740385
D.Y.A (anbulantzia)	464622
Gurutze Gorria	743864
Mendaroko Ospitalea	756264
Odol Emaileak	743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	740442
PESA (Eibar)	902 10 12 10
Taxi geltokia	740898

UDALA

Euskara Zerbitzua ...	744366
Udal Kirol Patronatua	744415
Kultura Zerbitzua...	742158
Mendaroko Udala ...	756100
Ongizate zerbitzua ...	741008
Udaletxea	741050
Udaltzai ngoa	741394

BESTELAKOAI

Elgoibarko Izarra	741626
Kiroldegia	744415
Kontsumo Bulegoa	743088
Liburutegia	743525
Musika Eskola	742145
M intxeta	744315
Parrokia	740842
Postetxea	741547
Gaztetxea	741357

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza	740296
Zaharren Biltokia	740526

IKASTETXEA

Haur Eskola	74 21 41
Herri Eskola	74 08 79
I. M. H.	74 41 32
Herri Institutua	
Arreiturre	74 02 67
Ezenarro (Meka)	74 44 80
Ikastola	74 44 41
Pilar Ikastetxea	74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN	74 41 12
El Diario Vasco	74 40 73
El Correo Español	74 10 82
Egin	10 84 21
Zazpiki Irratia	74 34 74

5 ostirala

22:15 ZINEA
"Contact"

6 larunbata

16:30 KINA BEREZIA
Jubilatu Etxean

19:30-22:15 ZINEA
"Contact"

7 igandea

12:30 MEZA NAGUSIA
JUBILATUEN
OMENEZ
Parrokian

16:30-19:30-22:15
ZINEA
"Contact"

18:00 DANTZALDIA
GELATXOrekin
Jubilatu Etxean

8 astelehena

19:30-22:15 ZINEA
"Contact"

10 asteazkena

19:00 HITZALDIA
Gaia: "Ametsak eta osasuna"
Hizlariak: Izargain kolektibokoak
Kultur Etxean
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

19:30 HARITZ
TALDEAREN 25.
URTEURRENEKO
EGITARAUAREN
AURKEZPENA
Udal Areto Nagusian

11 osteguna

22:15 ZINE KLUBA
"Un verano en la Goulette"

12 ostirala

18:30 ODOL
ATERALDIA
P. M. Urruzuno 8an

22:15 ZINE KLUBA
"Un verano en la Goulette"

• II al • • • • RI • al III • • 11 • 111 • • • • 111

11 NEA



Zuzendaria: Robert Zemeckis
Antzezleak: Jodie Foster, Matthew McCounaughy, James Woods.

Contact

Ellie-k txikitatik izan du zientziak azaldu ezin dituen gauzen atzean zer dagoen jakiteko irrika. Unibertsitatean ikasten hasten denean, lurtarrenak ez diren mezu inteligenteak topatzen aha-legintzen den atalean sartzen da buru-belarri. Satelite baten laguntzaz espazioa arakatzeari ekingo dio. Egun batean bere usteak baieztatu dituen zerbaitekin egingo du topo.

• • • 111R EZ ER ZER • • • • IR • • • ZI • • • 111

• **Odol ateraldia datorren ostiralean, hilak 12**

Odol Emaileen Elkartetik aditzera eman dutenez, datorren ostiralean, hilak 12, ohiko odol ateraldia egingo da Pedro Migel Urruzuno 8ko egoitzan. Aurrez deitutako guztiek 18:30etik 20:30era bitartean egoitzara jo dezakete odola emateko.



• **Haritz Dantzari Taldeak 25 urte beteko ditu**

Datorren urtean Haritz Dantzari Taldeak 25 urte beteko ditu sortu zenetik. Hori dela eta, hainbat ospakizun eta ekitaldi antolatu dituzte datorren urterako. Prestatu duten egitarau zabal hau herritar guztien aurrean aurkezteko asmoa dute datorren asteazkenean, hilak 10, arratsaldeko 19:30ean Udal areto nagusian.

• **Ametsak eta osasunapi buruzko hitzaldia**

Elgoibarko Izarra Kultur Elkartek "Ametsak eta osasuna" izenburua darman hitzaldia antolatu du datorren asteazkenearako, hilak 10. Izargain kolektiboko kideen eskutik, lotan gaudenean izaten ditugun ametsen interpretazioaren inguruan hainbat xehetasun eta datu jakingo ditugu. Hitzaldia iluntzeko 19:00etan izango da Kultur Etxean.

• **Jostailuen bilketa**

Elgoibarko Gurutze Gorriak jostailuak biltzeko kanpainari ekin dio Gabon garaia hurreratzen hasi dela-eta. Gurutze Gorrikoek biltzen diren jostailu guztiak beharra duten haurren artean banatuko dituzte Errege egunean. Beraz, erabiltzen ez diren edo etxean baztertuta dauden jostailuak Gurutze Gorriak Aita Agirre plazan duen egoitzara eraman daitezke arratsaldeetan.

• **Elikagaien bilketa Pilar ikastetxean**

Urtero bezala, Pilar ikastetxeak elikagaiak biltzeko kanpainari ekingo dio hil honen 9tik 16ra bitartean. "Kiloaren kanpaina" izenpean, herriko familiek euren etxeetan soberan dituzten elikagaiak ikastetxera eraman ditzakete, Gabonetan behartsuen artean banatzeko. Ikastetxeko arduradunek eskerrak eman nahi dizkiete elikagaiak bidali dituzten guztiei, erakutsitako elkartasunarengatik.

• **Haurrentzako Jaiotza lehlaketa antolatu da**

Parrokiko Kristau Ikasbi-deak urtero antolatzen duen Jaiotzen Lehiaketaren beste edizio bat izango da aurten. 14 urtera arteko haurrek har dezakete parte. Datorren larunbatean, hilak 13, izena emateko eguna izango da, goizeko 11etatik ordu batera bitartean parrokiak Ubirtarten duen lokalean. Lehiaketa, beiriz, igandean, hilak 14, izango da Parroklako arkupeetan. Gehienezko neurriak 75x55 izan beharko dira. Lehenengo bost sailkatuek trofeoa eta oparia jasoko dute sari modura. Parte hartzen duten jaiotza guztiakin erakusketa egingo da San Frantzisko 13 zenbakiko lokalean (Argin zapatadenda zena).

~ ~ 3G1 fi DG1111

FARMAZIAK

6	Etxeberria Etxeberria (Errosario kalea)
7	Etxeberria Etxeberria (Errosario kalea)
8	Etxeberria Etxeberria (Errosario kalea)
9	Bidasolo Zabaleta
10	Etxeberria Etxeberria (Santa Ana kalea)
11	Etxeberria Escala (Santa Ana)
12	Bidasolo Bidasolo

ESCALA: Rekalde, 1
Soraluze. Tel: 75 16 38
ZABALETA: Kalebarren, 9
Soraluze. Tel: 75 13 84

OKINDEGIA

6	Larunbata Izagirre
7	Igandea Fotero
8	Astelehena Zabaleta

11 • R • • • RI • • • • IIII ■ al • • •



Un verano en la Goulette (Tunez, 1996)

Tunezeko "La Goulette" izeneko auzo ezagunean bizi diren hiru familiaren hartez, erlijio eta arraza ezberdinen arteko harremana azaltzen du pelikulak. Familia bakoitzak erlijio edo sinesmen bat du: judutarra, katolikoa eta musulmana. Gurasoen artean sortzen den nahaste bat medio, alaba bakoitza erlijio ezberdineko mutil batekin ezkontzeko proposamen orijinala proposatuko diete.

Zuzendaria: Ferid Boughedir
 Antzezleak: G. Ratib, M. Aduani, G. Nataf.

Bestelakoak

- "Solidaritategaren denda" rako butanozko estufa hehar dugu, tr 74 28 22 (Rosa)
- Karitasen butanozko estufa bat hartuko genuke. Tel: 74 15 09/ 74 12 57
- Lepoko zapi hat galdu dut (hi ahate ditu). tr 74 06 17 (Saritue egingo da).
- Pilarreko Amabirjinaren irudia duen domina aurkitu dut. tr 74 13 37
- Begi urdindun katu txuria aurkitu dut. Lau hitabete inguru ditu. tr 20 20 18

Partikularrak

- Eskola aholkularitza partikularrak ematen dira 13 urtetik 20ra hitartekoentzat. tr 74 41 16/ 907 15 30 62
- Kitarra klase partikularrak (solfeo gabe) ematen dituen norhaiten bila nabil. er 74 12 05 (gauzez)
- Injirteru tekniko industrialak matematika, fisika, kimika, marrazketa eta abarri buruzko klase partikularrak ematen ditu (gaztele-raz). tr 74 22 29 (13egoa)
- Alemanezko klase partikularrak ematen ditut. 74 00 98
- Marrazketa tekniko eta diedrikoko klaseak hartuko nituzke euskaraz. tr 74 27 78 (Sara)
- Lizentziatuak fisika eta kimikako klase partikularrak emango tuzke. Maila guztiak. tr 74 43 98174 08 09 (Marian)
- Marrazketa tekniko eta diedrikoko klaseak ematen dira. 74 43 98 (Iñaki)

Garajeak

- Garaje marraduna alokatzen da Kalamua kalean. Urasandin. tr 74 13 82
- Garaje marraduna alokatzen da Pista Beltzean. tr 74 19 70
- Garaje marraduna alokatzen da pista beltzean, s 74 00 70 (gauzez)
- Garaje itxia alokatzen da Pista Beltzean. er 74 03 81
- Garaje marraduna salgai Santa Ana 50 zenbakia. e 74 27 89
- Garaje marraduna saltzen dut Karakotaren azpian. Garajes IVIa-darixa. tr 74 04 34

Etxebizitzak

- Etxea salgai Urasandin. tr 75 52 45
- Pisua alokatzen da Bartolome 14-3an.e 74 22 56
- Buhardilla bat saltzen da Pedro Muguruzan. Bi gela, sala, sukaldeta, bainugela eta despensa ditu. tr 74 14 23 (eguerdiko 12:00etatik 14:00etara).
- Etxea salgai Santa Ana kalean, Berritua dago. tr 929 43 24 22 (Arratsalekleko 6etatik aurrera).
- Etxebizitza salgai Deban. Alameda parean, hondartzatik 50 metrora. Berritua. s 908 57 95 89
- Etxea alokatzen da San Bartolome kalean. Altzariekin. tr 74 00 65
- Etxea alokatzen da Erretxindin, amueblatua. tr 74 22 25

Lana

• ESKAINTZA •

- 18-25 urte hitarteko neska behar da ostiral eta larunhatetan lan egiteko. 12' 74 45 87
- Londresen bizi den Elgoibarko familia batek neska euskalduna behar du umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. a 74 08 17
- Neska euskalduna behar da jate-txean lan egiteko. Esperientziarekin. e 74 37 22 (Goizeko 9etatik 11etara)
- ♦ Emakumea behar da barrarako eta sukaldarako. 74* 74 37 60

ESKAERA

- Barne Komertzio titulua duen neska euskalduna eskaintzen da administrazio lanak egiteko. tr 74 43 31 (Agurtzane)
- Eskopetero-armeroa eskaintzen da reharbatze lanak, eskopetero, limatzaile edo pulidore lanak egiteko er 17 47 70
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin edo haurrak eta pertsona nagusiak zaintzeko. s 17 47 70
- Bigarren mailako espezialista eskaintzen da igeltsero edo enkofratzaile lanak egiteko. s 17 47 70
- Etxeko lanak eta garbiketa egiteko emakumea orduka lan egiteko eskaintzen da. tr 74 15 09 (Victoria)
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak eta zaharrak zaintzeko. Esperientzia daukat sukaldako lanak egiten tr 74 37 22 (21 :00etatik 23etara)

Salerosketak

• SALDU •

- Bi hilabeteko katakume pertsak, gris kolorekoak salgai. a 74 37 21 (M. Angeles)
- Motozerra saltzen da, Husquarna - 45. Nahiko herria eta merkea. tr 74 11 29
- Motor bat salgai. Honcla CR'94 250. Egoera onean, oso gutxi erabilia.e 74 43 32 (Ihan)
- Urrutiko mandoarekin dahilen autoa salgai. Egoera onean eta merkea. tr 74 39 63 (Egurdian eta gauean)
- Buzeatzeko ekipo osoa saltzen da. 7 mm.ko trajea. Berri-berria. 25.000 pta. s 909 41 73 52 (Dani)
- 90x60 cm.ko erdiko mahai bat eta 60x60 cm.ko izkinako mahaia saltzen ditut. Estilo garaikidea (burdinezko oinak eta beira). Berri-berriak daude, bi urte dituzte. Erdi prezioan. Aspiragailua ere saltzen da, Panasonic etxekoa. Hina urte ditu eta oso gutxi dago erabilita. tr 19 16 80
- 4 metroko karahana saltzen da. is 74 31 37
- Antezko tuketa berdea saltzen da. Egoera onean. Merke. tr 74 25 36 (gauzez)
- Renaultt Expres furgoneta diesela salgai. tr 74 02 09 (gauzez)

• EROSI*

- Hariak gordetzeko armairua, hotoiak forratzeko makina eta kaja erregistradora erosiko nituzke. a 58 09 18 (Bego).
- Fero-Sette markako trikitia erosiko nuke. tr 19 18 91 (gauzez)
- Txahola erosiko nuke Elgoibarren edo ingunian. a 74 37 87

Agurrak

- Zorionak Haritz Iriondori hilaren 4an urteak bete zituelako. 6. mailako lagunak.
- Zorionak Hijanori eta bere **ernazteari** a.steartean, hilak 2, haur hat izan zutelako. Ikasleen partez.
- Zorionak Endika Astigarragari igandean 9 urte beteko dituelako, Maialen eta Mireiaren parte. Zorionak baita ere bere lagun Asierrren partez.
- Zorionak Ainboa Usobiagari hilaren 4an urteak hete zituelako. Ikastolako 5. mailako partez.

• Zorionak **amama Mariari** 161a- ren 3an urteak bete zituelako: zorionak **aitona Valeriori** ere bai, hilaren 9an urteak beteko dituelako. Familiaren partez, hategi ere Nerea eta Olatz biloben partez.


• Zorionak **Juan Antonio Martini** bere urtebetetze egunean Ikastolako 6. mailako partez. Eskerrikasko goxokienptik?



• Zorionak **hilarri, Ane, Eli** eta Leireri beren 23. urtebetetze egunean. Kuadrilako partez. Ea afari bat ordaintzen diguzuen!



• Zorionak Begoña Elizondori hilaren 4an urteak bete zituelako. Familia osoaren partez, Zorionak bere lagun eta hizilaguen partez ostegunean urte mordo bat bete zituelako. Askoz gehiago bete ditzazula opa dizugu.



1 Zorionak **Iosu Garitagaitiari** astelehena, hilak 8, urteak beteko dituelako. Zorionak baita ere Conehi Calderoni egtn berean bere santua delako. Familiaren partez musu haundi bat.



• Zorionak **Manu Landari** bere urtebetetzean. Muxu haundi bat familiaren partez.



42ranburu bitxidenda


Bitxietan eta erlojueton aukero bikaino aurkituko duzu bertan.

4172 Gabonetoko opariak erostean eskaintza bereziaz balio zoitezke. Bi urrezko erloju zozketatuko ditugu eta 1.000 pta.ko gustuorengotik zu ere zozketan sortuko zoro.

VAP Zozketa 1998ko urtarrilaren Sean egingo do dendon,



Son Frontzisko, 26
Tel: 74 25 35



Hitzaia

ametsak Abenduaren 10ean,

ar eta

asteazTna,


iluntzeko 19 Eetan

osasuna KULTUR ETXEM

Hiziriak: IZARGAIN



Antolatzailea:



Laguntzaileak:



GREMIOAK

ARROZTEGIAK

BIENA

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 74 31 16

GARCIA

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 74 32 38

JUARISTI

Leihoak-Armaru enpotratuak
Santa Ana, 18
☎ 74 29 94

LODOSO

Leihoak
Ermuaranbide, 18
☎ 74 34 90

SORALUZE

Leihoak-Armaru enpotratuak
Santa Ana, 3
☎ 74 36 34

ULAZIA

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 74 05 47

ZABALA

Etxeke erreformak-enbalajeak
Deba kalea 16
☎ 74 03 96

LUIS F. BERISTAIN

Sukaldeak · ateak · zoluak
Arteixe, 1
☎ 909 42 68 19

ITURGINTZA

ANGEL

Santa Ana, 5
☎ 74 17 61

JAVI

Erretxindi, 1
☎ 74 14 80
☎ 908 77 29 32

JUAN CARLOS S.L.

Urasandi 59-61, behea
☎ 74 34 87

ONGI

Urasandi, 8
☎ 74 10 82

PAGOAGA

San Antolin kalea, 13
☎ 74 02 79

TELLABIDE

Azpilgoeta, 19 MENDARO
☎ 75 50 62
☎ 907 75 50 62

ZALDUA

Urasandi, 26
☎ 74 05 30

ZUBIZARRETA

Ubitarte, 5
☎ 74 07 89
☎ 908 14 30 40

PINTURAK

PINTURAS ELGOIBAR FERMIN

Urasandi, 57/3
☎ 74 39 91
☎ 909 76 28 80

JOSE PINTURAK

San Bartolome, 28
☎ 74 12 55
☎ 929 44 23 14

IGELTSERITZA

KIDEEK S.L.

San Roke, 17
☎ 74 34 86
☎ 989 58 37 61

ANTONIO MARKEZ

Urasandi, 24
☎ 74 34 18

PATXILLO

Pedro Muguruza, 13-5
☎ 908 31 96 42

IPINTZA

Trenbide, 25
☎ 907 41 78 67

ELEKTRIZITATEA

ARAMAR

Morkalko, 1
☎ 74 12 80

AZPELETA

San Frantzisko, 51
☎ 74 12 38

BETI ARGI

Errosario, 6
☎ 74 16 44

URZELAI

Santa Ana, 12
☎ 74 13 76

ISOLAMENDUAK

GLAS CONTROL S.L.

Inpermeabilizazioak
Ubitarte, 7
☎ 74 30 94